

Izena emateko prozedura

Izena emateko epea: otsailaren 3tik 16ra.

Plaza kopurua mugatua da (**gehienez, 63 pertsona**), eta lehentasuna izango dute Basaurin erroldatuta daudenek. Ikastaroan 63 eskabide baino gehiago badaude, **zozketa** egingo da **otsailaren 19an**, eta, onartuak izan zein ez, posta elektronikoz jakinaraziko zaie interesdunei. Zozketaren emaitzekin itxaron-zerrenda egingo da plazarik lortu ez dutenekin.

Ez da inolako ezeztapenik onartuko.

Ikastaro bakoitzean, gutxienez 45 parte-hartzaile beharko dira taldea sortzeko. Hala ez bada, Basauriko Udaleko Kultura Sailak beretzat gordetzen du ikastaroren bat bertan behera utzi ahal izateko eskubidea.

Izen-ematea elektronikoki egingo da. Horretarako, www.basauri.eus webgunean online inprimakia egongo da eskura. Jarraitu beharreko pausuak:

- 1) Aipatutako inprimakia bete baino lehen, **ordainketa egin behar duzu** autolikidazio sistemaren bidez Zerga Bulego Birtualean.
- 1) Bulego Birtualera sartzeko, baimendutako sistemekin identifikatu behar zara (BAK, BAKQ, ziurtagiri elektronikoa), eta autolikidazioen atalean sartu. Hemen, "Likidazio berria sortu" aukera hautatu behar da, **eta Autolikidazioa estekan sartu**: «PPCKP - CURSO OCIOBIDE / OCIOBIDE IKASTARO».
Bi ikastaroetan izena eman baduzu, bitan aukeratu beharko duzu tarifa. Adibidez: bi ikastaroetara joango bazara, honako hauek ordaindu beharko dituzu:
 1. ikastaroari dagokion tarifa (astelehena): 42,00 €
 2. ikastaroari dagokion tarifa (asteazkena): 42,00 €Ordaindu beharrekoa, guztira: 84,00 €
- 2) Ordainketa egin ondoren, inskripzioarekin jarraitu beharko duzu.
Zure datu pertsonalak sartu beharko dituzu eta zein ikastarotan izena eman duzun adierazi beharko duzu.
- 3) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren klausula onartu beharko duzu.
- 4) Ordainagiria erantsi beharko duzu.
- 5) Azkenik, laburpena agertuko da izen-emateari buruzko informazio guztiarekin. Gomendagarria da laburpen hori inprimatzea/gordetzea, egiaztagiri gisa. Ez ahaztu "Amaitu" botoia sakatzea prozesua amaitzeko eta zure eskaera gordetzeko.
- 6) Izen-ematea egin ondoren, ikastaroren batetik kanpo geratu bazara plazen kopurua gainditu delako (63 plaza), dagokion diru-itzulketa egingo zaizu.
- 7) Behin izen-ematea eginda, ez da inolako ezeztapenik onartuko, **parte-hartzaileak istripuren bat izan ez badu edo gaixorik ez badago, eta betiere mediku-agiriz justifikatuta.**

Ziurtagiri digitalik ez baduzu, Basauriko Udalaren beheko solairuan eta San Migelen (Pagasarri kalean) dauden Herritarren Arretarako Zerbitzuan -HAZ- eman dezakezu izena. Kasu horretan, bankuko txartelarekin joan beharko duzu ordainketa egiteko. Aldez aurretik hitzordua eskatu beharko da, 94.466.63.00 telefonoaren bidez edo Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan – HAZ – irteeran instalatutako makina automatikoen bidez edo esteka honetan: <https://sede.basauri.eus/es/citaprevia>.

Prezioa

42 euro ikastaro bakoitzeko

Argibide gehiagorako, deitu telefono hauetara:

944 66 63 11 (Basauriko Udala) - 944 13 90 75 (Deustuko Unibertsitatea)

Ikastaroak eskainiko diren tokia

Basozelai Gizarte Etxea

Basozelai, 11 - 48970 Basauri